

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ramon Saizarbitoria Zabaleta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako idazle aski ezaguna. Larramendi kalean bizi izan zen umetan. Aita Mutrikukoa zuen eta ama azkoitiarra. Bi senide ziren. Fraide korazonistetan ibili zen eskolan, ez oso gustura. Rikardo Arregirekin hasi zen kultur jardueratan parte hartzen, Zeruko Argian kolaborazioak egiten. Jarrai antzerki taldean ibili zen, baita irratian ere. Baina batez ere literatur jardunarekin eman zuen zeresana: "Egunero hasten delako" liburuarekin (1969) euskal nobelagintza modernizatu zuen; "Ehun metro" eta "Ene Jesus" etorri ziren ondotik, berritzaileak horiek ere. Lur argitaletxearen bultzatzaileetako bat da. 70eko hamarkadaren bukaeran 'Oh Euzkadi' aldizkaria ere sortu zuten Koldo Izagirrek eta biek. Soziologoa da ikasketaz eta ogibidez. Gros auzora ezkondu zen. Etenaldi luze baten ondoren, idazten jarraitu zuen; besteak beste 'Hamaika pauso' eta 'Gorde nazazu lurpean'.

Zintak

DON-110

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-27
- **Iraupena:** 115 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Umetako jolasak eta Donostiako gizartea

- **Erref:** DON-110/003
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:04:49. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Polizia eta lapurretara, txorro-morro-piko-tallo-ke! eta beste hainbatara jolasten zuten, beti erdaraz. Easo kalea eta Amara Zaharra langile girokoak ziren, gaztelatik etorritakoak gehien bat. Urbietako ingurukoak burgesiako familiak ziren. Ramonek eta arrebak ez zuten gehiegi kalean jolasten, ez baitzuten beraien girotzat sentitzen. Eskola giroan, kirola izaten zen jolas nagusia.</p>

Transkripzioa

Esango nuke Amara auzoan... Gu, zea, muga baten bizi giñenez, Larramendi kalea orduan, Easo kalea eta Amara Zaharreko... langile giroko kaleak ziren. Esango nuke, immigrante... aspaldidanikoak, baiña immigrante Gaztelatik etorritakoak gehienbat esango nuke zirela. Eta gero, aurreraxeago Urbietako eta burgesiarekin muga egiten duen puntua esango litzateke zala. Eta gu ez giñan asko ibiltzen kalean jolasean, nere arreba eta ni, esan nahi det. Baziran bai umeak kalean egoten zirenak edo, baiña gu esango nuke beste kultura batekoak giñela-edo, eta ez giñela hainbeste kalean ibiltzen. Ni akordatzeko naiz, akordatzeko naiz... ez dakit esan dezakedan akordatzeko naizela edo esan egin didaten, uste dut akordatzeko naizela, kalera atera nitzenean jolastera lehendabiziko egunetan, eskolatik etorri ostean, meriendatu ostean-edo hola izango zan, nik ez nekiela erderaz. Beraz, eskolara jun aurretik zan, oso txikia nitzela. Baiñan, alegia, ez giñen kalean asko ibiltzen. Baziran umeak ibiltzen zirenak. Baiña Urdaneta, Urbietako, Buen Pastor plaza eta hori burgesia txiki giroko jende osatua zegoen eta jende horrek ez du kalean jolasten, badakizu. Asko babestutako umeak eta abar, ezta? Beraz, jolasak, eskolako jolasak dira, eskolako patioan. Beno, eskolako patioan ez, ematen gintuzten Centenario plaza ingurutara; azkeneko etxea, 'Arranoaren etxea' esaten zitzaion. Etxe hori da... uste dut etxe hortan Aitzol bizi zala. Eta hori zera zan, etxerik gabe zan, eta futbol -zelairerik bat ere uste det bazala han. Eta han jolasten genuen futbolera eta jolas araututakoetara. Esan nahi det, deportea egiten gendula esan genezake, baiña jolasik horrela ez.

2. Azkoitian umetako ibilerak

- **Erref:** DON-110/004
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:09:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

<p>Azkoitira joaten zirenean, Urola ibaian aritzen ziren karramarroak, amuarrairak, ezkailuak... arrantzatzen. Eskuz, botilekin eta salabardoarekin aritzen ziren. Presa batean igeri egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta Azkoittin, berriz, ba, gehiago zan, ba, arrantzan egittea ibaian, Urola ibaian. Karramarroak ziren orduan Urola ibaian, amorraiak ere bai, ezkaluak asko. Baiña han ibiltzea. Ez det hola haurtzaroko jolasik gogoan.

- Eta arrantzarako ze tresna erabiltzen zenituen?

- Ba, nik osaba nuen oso abilla zala, eskuz harrapatzen zittun angilak. Ezkaluak botillakin, ogi-mamia sartuta, geizki ez banago. Gero salabardoakin karramarroak, baiña eskuz asko, karramarroak eta. Dena den, ni ez nintzen oso trebea, ezta... Azkoittin, gaiñera, han ingurutakoak nere edadekorik ez zegoen. Ni baiño pixkat haunditxoagoak ziren inguruko mutiko-neskak eta, esango nuke, begiratu gehio iten nuela neronek jolastu baiño. Igeri ere egiten genuen han presa baten, Urolan.

3. Botearekin arrantzan

- **Erref:** DON-110/005
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:09:19. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

<p>Donostiako portuan sarri ibiltzen zen, batelean, arraunean-eta. Pantxoak, txitxarroak, dontzeilak, "krabatxoak"... arrantzatzen zituzten. Kale Nagusian denda asko zeuden arrantza materiala saltzen zutenak. Txipiroitan beranduago hasi zen eta nahiko aspergarria egiten zitzaion.</p>

Transkripzioa

- Eta geo Donostin ya, ba, asko itxasoan, botean, arrantzan eta abar. Hori bai, hori asko itten genun. Arraunean eta horrela, botean. Portuan asko ibiltzen nintzen beti.

- Eta arrantzan zer harrapatzen zenuten?

- Bueno, ba, badian pantxoa asko. Eta gero, ba, txitxarroa udazkenara, dontzeillak, krabatxoak... hori. Bai, pantxoa asko, asko zegoen ta.

- Eta nola? Aparejuak-eta erosi egiten ziren?

- Bueno, pita erosten zan eta amuak, bai. Hor, Kale Nagusian arrantza suministroo denda asko dira —orain erropa-denda bihurtu dienak guztiak, ezta? Mariano Larrandia ta hoiek. Eta, bai, hor, ba, pita erosten genuen, berunak eta abar, eta geuk egin aparejua.

- Aitarekin ala...?

- Ez, aitarekin... juango nitzen, baiña... baiña ez. Esaten dizut, gazteik hil zan eta ez det horrela oroimenik. Botean-eta ibili izan giñela bai, islaa juan igeri eittera eta horrela botean; baiña ez, ez daukat oroimenik aittekin hola arrantzan. Bea juaten zala bai. Baiña hura ya txipiroitta ta horrela goizean goizo, eta hor ez nuen... Txipiroittan oso berandu hasi nitzen. Hortako, bueno, alde batetik desordutan. Illunabarrean ere egin litteke, baiña goizean. Eta gero, aspergarria da. Txipiroia nere gazte-denboran ya gauza oso estimatua zan eta ez zegoen soberan orduan ere txipiroia. Esango nuke gutxien gutxitu den espeziea-edo dala. Beste batzuk desagertu diran bezela —bixigua, pantxoa eta hoiek desagertu egin dira. Beste batzuk asko urrittu, dontzeillak, krabatxoak eta abar. Ba, pantxoa batez ere. Ba [agian] portutik harrapatzen ziren. Eta hoiek desagertu egin dia. Ta txipiroia, berriz, orain ere harrapatzen da. Ez asko, baiña orduan ere ez zan horrela

asko harrapatzen. Orduan nahiko aspergarria zan [...] egotea eta ez zitzaidan asko gustatzen.

4. Etxean euskaraz egitera derrigortuta

- **Erref:** DON-110/007
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:19:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aitak kontzientzia linguistikoa zuen eta seme-alabak gogor hartzen zituen gaiaren inguruan. Euskaraz egitera derrigortu egiten zituen.</p>

Transkripzioa

- Irakurzaletasuna, garai hortan hasi ziñan irakurtzen ala...?
- Bueno, ez dakit, etxean aitta ilustratua zan, bere mailan, oso politizatua, oso-oso abertzalea. Eta, bueno, besteak beste, horregatik hitz egitten genuen euskaraz, ezta? Derrigortu egiten gintuen euskaraz hitz egittera. Oso gogorra zan, gainera. Radiorik ez zan entzuten, beti erderara pasatzen giñenean errita egiten zigun, "euskaraz, euskaraz" beti. Nahiko... alderdi horretatik nahiko errepresiboa izan zan, alegia, kontzientzia linguistikoa zuela, ez zuela euskera bakarrik... Gainera, bueno, defenditzen zan; esaten zuen elebitasuna mesedetakoa zala, errezago ikasteko beste hizkuntza batzuk, eta abar. Bazuen diskurtso hori, nolabait ere. Zeren jende asko baitzegoen... Nik gogoan det eztabaida bat, nere aittaren lagun bat eta bera eztabaidatzen, ba, gizon hori esaten, ba, seme-alabei ez ziela euskera irakasten, ze aber zertarako balio zuen euskerak eta traba besterik ez zuela egitten eta, begira, ni hemen euskaraz hitz egitten ez detelako erdaraz ere ez dakit, eta hori ez dakit eta... Nere aitta defenditzen. Eta ni, bueno, umetan bezala, ba entzuten, ez? Eta gogoan det, ba, nere aittak erabiltzen zuela argudio hori, elebitasunaren, ba, balioa eta abar. Zeren eta nere arrebari monjetatik dei bat egin baitzioten, egin baitzieten esanaz eskolan aurrera egiteko hobe zuela euskera eta... euskera utzi eta abar, ez? Eta gogoan dut orduan ere, ba, nere aitta monjen... gaizkiesaka jarduten zuela, ze hain zuzen ere, bi neskei bialdu zien, zieten, zera, mezu hori, ohar hori, bi familiri, eta hain zuzen ere bi... nere arreba eta bestea klaseko lehenak ziren edo. Nere arreba oso azkarra zan. Eta, hala ere, monjek, ba, hori: hobe zala euskera utzi, nabritzen zala etxean euskeraz egitten zeaa... Ez dakit, hitz egitteko moduan nabarittuko zioten edo. Ez det gogoan guk sekula eragozpenik izan dugunik gazteleraz hitz egitteko. Alderantziz: euskaraz hitz egitteko bai. Ze, dudarik gabe, gaztelera mantentzea Donostian eta maila onean ez zan zaila.

5. Euskara etxekoa eta erdara kalekoa

- **Erref:** DON-110/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:19:11. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Erreterria eta Hernani aldetik corazonistetara etortzen ziren mutikoei iseka egiten zitzaien. Berak haiekiko gertutasuna sentitzen zuen. Euskara etxekoa zen eta kalekoak eta eskolakoa erdara. Modu naturalean bizi zuten banaketa hura.

6. Donostiako gizartea eta euskalduntasuna

- **Erref:** DON-110/009
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:21:57. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa

Laburpena:

Donostian zentroko eta periferiako familien egoera sozioekonomikoan desberdintasun handia zegoen, baita donostiarren eta inguruko herrietakoen artean ere. Euskaldun izatea talde etniko berezi moduan bizi zuen.

7. Barojazalea

- **Erref:** DON-110/011
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:27:50. **Bukatu:** 00:31:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Irakurzaletasuna etxean garatu zuen. Guillermo izeneko serieko liburuak irakurtzen zituela du gogoan. Irakurtzen Barojaren liburuekin zaletu zen, Miguel Pelay Orozco idazleak pasatutakoak, aitaren laguna baitzen. Denboraldi bat irakurri gabe pasatuz gero, Barojarekin ekitzen zion berriz.

8. Gazteleraz idazten

- **Erref:** DON-110/012
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Idazten hasi zenean, Pio Barojaren estiloa imitatzeari ekin zion, gazteleraz. Irakurri zuen euskarazko lehendabiziko liburua itzulpen bat izan zen. Aitak bazituen euskarazko liburu batzuk baina ez zioten grazia handirik egiten, ulergaitzak egiten zitzaizkiolako.

9. Zeruko Argian Rikardo Arregiren eskutik

- **Erref:** DON-110/014
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:38:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Rikardo Arregiren eskutik hasi zen Zeruko Argian idazten. Zita klandestinoia izan zuten elkar ezagutu zutenean. Beste hizkuntzetan egiten zena euskaraz egitea zen orduko helburua. Hasierako lanak kontatzen ditu.

10. Zeruko Argiarako lehen eskusiba

- **Erref:** DON-110/015
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Espainiako selekzioa Irunera etorri zen behin eta atezaina azkoitiarra zen orduan, euskalduna. Entrenatzaileak ez zien kazetariei baimenik eman futbolariekin hitz egiteko, baina Ramon atezainari euskaraz zuzendu zitzaion eta elkarriketa lortu zuen.

11. Lehenengo idatziak

- **Erref:** DON-110/016
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:42:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Jarrai antzerki taldean sartu zen eta lñaki Beobiderek topa egin zuen. Harekin talde bat osatu eta "Gazte naiz" orrialdea sortu zuen. Hortxe hasi zen bere artikuluak idazten. Gero Suitzara joan zen eta nobela bat idaztea erabaki; `Egunero hasten delako´ idatzi zuen.</p>

12. `Jarrai´ antzerki taldeko kide

- **Erref:** DON-110/017
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:42:13. **Bukatu:** 00:46:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

<p>"Academia de Declamación Vasca" zelakoan aritu zen Maria Dolores Agirrerekin. Jarrai antzerki talderako itzulpenak egin izan zituen Agirrek. Obra onak antzeztea erabaki zuten eta horretarako atzerriko egileen lanak aukeratu zituzten. Lan ona egin zuten inpresioa du, euskarari prestigioa ematen lagundu ziola. Asko dibertitzen ziren.</p>

13. Gazte moderno euskalduna

- **Erref:** DON-110/019
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:47:32. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Donostiar gazte modernoa izatearren, euskaldunek ez zuten espero Ramon ere euskalduna izango zenik. Anekdotak bat kontatzen du. Euskaldunik ez zegoen sententzia izaten zuten; ez zegoen inor antzerkirako, irratirako, idazteko...

14. Kontzientzia linguistiko falta

- **Erref:** DON-110/020
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:55:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskarazko antzerkirako jenderik ez egotea nortasun kontua zela uste zuen orduan baina gerora konturatu zen ez zela hori arrazoia. Frankismo garaiko beldurrez iritzia ematen du. Kontzientzia linguistikoa falta zela uste du.

15. Tradizioarekiko haustura

- **Erref:** DON-110/022
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:57:29. **Bukatu:** 01:01:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Tradizioarekiko haustura jarrera harekiko kritiko azaltzen da orain; pasatu egin ziren sententzia du. "H"-aren eta euskalkien inguruko iritzia ematen du.

16. Kultura frantsesaren eragina

- **Erref:** DON-110/023
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:01:41. **Bukatu:** 01:04:27

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Euskal literaturan dena egiteko sentsazioa bazuten eta horrek bidea erraztu zien. Modernoa izatea erraza zen. Kultura frantsesa erreferentea zen.

17. Donostiar euskaldun kulturadunak

- **Erref:** DON-110/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:07:00. **Bukatu:** 01:08:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Garai bateko donostiar euskaldun kulturadunak gutxietsi egin izan dira, ez dira ezagutzen euskaldunon artean.

18. Idazle erreferenteak

- **Erref:** DON-110/026
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:08:30. **Bukatu:** 01:10:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Egoeraren arabera aldatu izan ditu idazle erreferenteak; batzuk aipatzen ditu.

19. Ez zuen bere burua idazletzat

- **Erref:** DON-110/027
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:12:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Hastapenetan ez zuen bere burua idazletzat hartzen. Euskararen eta euskal kulturaren egoera hobetu zela ikusita, idazteari utzi zion baina berriro ekin zion bere gogoz eta beharrez.

20. Lehen nobelaren gai berritzailea

- **Erref:** DON-110/028
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:12:58. **Bukatu:** 01:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Ramonek idatzitako lehenengo nobela, "Egunero hasten delako", gai aldetik berritzailea izan zen. Gaztetxotako bizipen batean eta Suitzako bizipenetan kokatzen du gaiaren jatorria.

21. "Egunero hasten delako" nobela

- **Erref:** DON-110/029
- **Iraupena:** 0:05:04. **Hasi:** 01:17:04. **Bukatu:** 01:22:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

"Egunero hasten delako" nobelaren bilakaera kontatzen du. Harekiko iritzia ematen du.

22. "Oh! Euzkadi" aldizkaria

- **Erref:** DON-110/030
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 01:22:08. **Bukatu:** 01:26:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Koldo Izagirrerekin "Oh Euzkadi!" egiten elkarlanean nola hasi zen kontatzen du. Koldoren eta Bernardo Atxagaren "Panpina ustela"ren ondorengoa izan zen.

23. Herriz herri hizlari

- **Erref:** DON-110/031
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 01:26:24. **Bukatu:** 01:31:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Gogoan du herriz herri ibili zirela hitzaldiak emanez eta euskal eskuindarrekin arazoak izan zituztela. Orduko kultur giroko liskarrak kontatzen ditu.

24. Kultur giroko liskarrak

- **Erref:** DON-110/032
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 01:31:18. **Bukatu:** 01:34:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Orduan ez zegoen hitzaldiak euskaraz emateko inor eta beraiek joaten ziren. Ez du oroitzapen onik. Espainolistatzat hartzen zituzten. Nacho de Felipek eta Arestik boikota jasan behar izaten zuten.

25. Irratian gustura

- **Erref:** DON-110/033
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 01:34:28. **Bukatu:** 01:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:

Irratian hasi zenekoa kontatzen du. EAjtako zenbaitekin hasi zen. Loiola eta Arrate irratarako saioak grabatzen zituzten. Horiek jarri zuten harremanetan Rikardo Arregirekin.

26. Euskadiko Ezkerratik zinegotzi

- **Erref:** DON-110/035
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:41:38. **Bukatu:** 01:43:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika

Laburpena:

Euskadiko Ezkerraren aldetik zinegotzi izan zen Donostiako udaletxean. Oposizioan egonik, ezin izan zuen ezer askorik egin.

27. "Gaur" ikerketa soziologiko taldea

- **Erref:** DON-110/036
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 01:43:53. **Bukatu:** 01:47:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

"Gaur" ikerketa soziologikoko taldea. Egindako lanak eta bizipenak kontatzen ditu.

28. Lur argitaletxea

- **Erref:** DON-110/037
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 01:47:07. **Bukatu:** 01:51:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Lur argitaletxea. Hastapenak kontatzen ditu. "Equipo Editorial" izan zen aitzindaria. "Egunero hasten delako" Lur argitaletxeak atera zuen.

29. Lur argitaletxean 2.000 harpide

- **Erref:** DON-110/038
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 01:51:37. **Bukatu:** 01:55:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Dibulgazio liburuak, entsaioak eta literatura modernoa euskaraz argitaratzea zen Lur argitaletxearen helburua. Nola lan egiten zuten kontatzen du. 2.000 harpide inguru zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com